Bertako gaztetxeak, euskaraz eta gazteleraz hainbat ekintza eskeintzen ditu dohainik; baina ez dute jarduera bat ere antolatzen Haur Hezkuntzako umeentzat. Dena den, haurrentzako euskarazko zinema eskeintzen dute 2€tan. Udal-ludoteka ere badute 6-12 urte bitarteko umeentzat. Astelehen eta asteazkenetan euskaraz mintzatzen dira, astearte eta ostegunetan gazteleraz, eta ostiraletan euskaraz eta gazteleraz. Honen ordutegia 17:00etatik 19:00etara da astelehenetik ostiralera.

Ondorio bezala, bi herri hauek nahiz eta baliabide oso antzekoak izan, Barañainen eskeintzen diren euskarazko jarduerak, orokorrean, Lehen Hezkuntzatik aurrerako umeentzat zuzenduta daudela eta Zizur Nagusian, ordea, elebitasuna Haur Hezkuntzatik sustatzen dela esan beharra dago.

3.2. Kasuen markoa

Proposatutako hiru kasuak Haur Hezkuntzako 2. zikloko 2. mailan (4 urtekoen gelan) kokatuta daude. Hau horrela izanik, Elizabeth Coelho-k (D. Lasagabaster eta J.M. Sierra-n “Multilinguismo, competencia lingüística y nuevas tecnologías”-en) azaltzen duen taulan (ikus 14. orrialdea) dioen bezala, guztiek H2-aren ikaskuntzan A laukitik hasten dira; non laguntza asko eta erronka gutxi dagoen. Bertan, Pertsona arteko Oinarrizko Komunikazio Gaitasunak (DCIB) garatuko dituzte; zeinak bere adinako haurrekin jolasteko, erlazionatzeko... erabiliko dituzten. Denbora pasa ahala, kuadrante guztietatik pasatzea espero da; eta modu honetan, aurreko DCIB lantzen jarraitzen dituzten bitartean, Hizkuntza Akademikoaren Dominio Kognitiboa (DCLA) eskuratu. Kasu bakoitzak laguntza gehiago edo gutxiago beharko du hau

lortzeko, baina helburua guztiek bi gaitasun hauek eskuratzen bukatzea du helburu.

Bestalde, kasu bakoitzerako erabakitako eskola zein den jakitea ezinbesteko zerbait da; izan ere, umearikiko hizkuntza ezberdinen (ingelera, euskara eta gaztelera) eskaera mailak ezberdinak izango dira Ikastetxearen Ikasketa Proiektuaren, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren eta Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuaren arabera.

Kasu bakoitza deskribatzen hasi baino lehen, orokorrean hauek deskribatzeko jarraitu izan dudun gidoia zein den jakitea baliagarria izan daiteke:

• Umea:

1. Arlo kognitiboa
2. Mugimenduzko arloa
3. Oreka pertsonalaren arloa
4. Arlo afektiboa eta harreman interpertsonala
5. Gizartean txertatzeko arloa

• Ingurunea:

1. Familia:

- Anaia-arrebak
- Gurasoak: adina eta lanbidea
- Gainontzeko familiako kideen laguntza

2. Sozio-kulturala:

- Haien egunerokotasuna
- Asteburuetan egiten dutena

3. Ekonomia

4. Haurraren inguruneke pertsonak darabilten hizkuntza

3.3. Kasuen deskribapena eta hauen Hezkuntza Premia Bereziak

3.3.1. Lehenengo kasua:

Beñat Down Sindromea duen 5 urteko mutil bat da. Haur Hezkuntzako 2. zikloko 2. mailan dago, eskolara urte bat beranduago sartu zelako bere adimen atzerapena zela eta. Zizur Nagusian bizi da eta bertan dagoen Erreniega I.Pkora doa.

Aipatzekoa da, familia hau Barasoainen bizi zela, eta haien seme-alabak euskaraz ikasi ahal izateko Zizurrera etortzeko erabakia hartu zutela. Hau oso garrantzitsua da; izan ere, honekin gurasoek beraien umeak euskaraz ikasteko zeukaten nahia adierazten du.

Eskolako orientatzaileak erabakitako ebaluaketa psikopedagogikoaren arabera, honako informazioa hau atera da:

Beñatek, DSM IV-TR-k atzerapen mentala izateko jartzen dituen bi baldintzak betetzen ditu; hau da, kasuak duen KI batezbestekoaren bi desbideratze tipikoaren azpitik dago gutxienez (batezbestekoa 100 bada eta desbideratze bakoitza 15ekoa, edo bada, KI 70ekoa izango luke); eta egokitze-gaitasunean bi eremu edota gehiagotan narriadura edo defizita dauka. Gauzak horrela eta orientatzaileak frogak pasatu eta gero, Beñaten adimen koizientea DSM-IV-R egiten duen sailkapena kontuan izanda, 50/55-70 bitartean daukala ikusi da; eta beraz, adimen atzerapen arina duela ikus daiteke.

Eremu kognitiboari dagokionez, arretaren kontrolaren alorrean, buruz ikasteko erabili beharreko estrategiak erabiltzean eta informazioa errekuiperatzeko trebetasunetan eraginkortasun gutxi daukala ikusi da. Bestalde, informazioaren aspektu garrantzitsuenak bereizteko zailtasunak dituela ere ikusi da; izan ere, ipuin labur bat kontatzerakoan, ez da gai ekintzarik garrantzitsuenak azaltzeko nahiz eta irakasleak galderen bitartez lagundu.

Eremu kognitiboaren barruan komunikazioaren eta hizkuntzaren inguruan hitz egitea ezinbestekoa da. Beñatek, eboluzioaren jarraibide orokorrei jarraiki, ahozko hizkuntzaren garapena dauka, nahiz eta batezbestekoekin alderatuta atzeratuta egon. Bestalde, elkarrizketa bat mantentzea kostatzen zaio; eta gainera, Down Sindromea duten pertsona guztiak bezala, mingainaren tamaina

Hezkuntza eleanitza eta Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak: hiru kasu praktikoko

oso handia da ahoaren tamainarekin alderatuta, eta horrek, zailtasunak sortzen dizkie ongi ahoskatzeko orduan baita gainontzekoek haiek esan nahi dutena ulertzeko orduan ere. “r” fonema ahoskatzeko zailtasunak ditu eta horrek ere ulermenean zailtasunak dakartza. Dena den, nahiz eta euskaraz hitz egitea kostatzen zaion, askotan hizkuntza horretan hitz egiten saiatzen da.

Irakurketa eta idazketa prozesuaren inguruan dagokion mailatik atzeratuta dagoela esan beharra dago. Idazketaren alorrean, adin hauetan, orokorrean, Teberosky eta Ferreirok umeen idazketaren etapen edota faseen inguruan egindako ikerketetan bereizten dituzten etapen artean, idazketa etapa silabikoan edota silabiko-alfabetikoan daude; baina Beñat, idazteko etapa aurre-silabikoan dago, diferentziatuan hain zuzen ere; non, ikusten dituen letrak imitatzen dituen baina idazten duena jakin gabe. Irakurketaren arloan bere gelakoekin alderatuta nahiko atzeratuta geratzen da; izan ere, gainontzekoek klaseko lagunen izenak irakurtzen dakite bera izan ezik.

Gorputz eta mugimenduzko eremuan, Down Sindromea duten pertsonak komunean dituzten ezaugarri fisikoak kontuan izanda, ez dituela bera bezalako pertsonak ezberdintzen esan beharra dago; hau da, ez da gai bere burua Down Sindromea duten beste pertsonekin erlazionatzeko.

Beñat, bere esku dauden lanetan laguntzeko modu eraginkorrean inplikatzeko da; nahiz eta iniziatiba falta izan, zereginak edota erantzunkizunak egiteko helduarekiko dependentzia dauka. Orokorrean, umeak adin hauetan nahiko inpultsiboak dira eta ez dituzte haien ekintzen ondorioak aurreikusten, baina behin ekintza egin dutela, haiekin hitz eginda, sortutako akatsak eta horien ondorioak ikusteko gai dira. Beñatekin, ordea, elkarrizketa hau mantentzea ezinezkoa bilakatzen da; eta beraz, inpultsiboa izateaz gainera, gero ez da gai egindakoaren inguruan gogoeta egiteko.

Down Sindromea duten pertsonak, orokorrean, arlo emozionalean oso sentikorrak dira; eta gertatzen zaien edozein gatazkarekin (nahiz eta gauzarik baliogabeena izan) asko sufritzen dute. Beñat oso sentikorra da ere, eta horren ondorioz askotan hunkitzen da bera bakarrik edozer gauzarekin estropezu egiten duenean, lagunek jostailuren bat kentzen diotenean, kasurik egiten ez zaionean... Dena den, ez da batere herratsua, eta nahiz momentuan oso gaizki pasatzen duen, gertatutakoa azkar pasatzen eta ahazten zaio.

Ume hau, bere guraso eta arreba bikiarekin bizi da; eta haien artean darabilten hizkuntza gaztelera da gurasoek gaztelera besterik ez dutelako hitz egiten. Nahiz eta anaia-arreba bikiak izan eta eskola berdinean egon, inoiz ez dira maila berdinean egon Beñat eskolan urte bat beranduago sartu zelako. Gaur egun, Beñaten gurasoek 42 eta 48 urte dituzte. Lanbidez, aita autonomia da eta amak, nahiz eta irakasle izateko ikasi zuen, ez du lan ordaindurik egiten. Amak etxetik kanpo lanik egiten ez duenez, Beñat zaintzeaz arduratzen eta bere beharretara egokitzen da. Gainera, amak irakasle izateko ikasi izana asko laguntzen du Beñaten egunerokotasunean; bere semearen heziketan eskuhartzen dakielako. Dena den, ume honen aita askotan egoten da lanean, eta Beñatek maiz non dagoen galdetzen du, bere falta sumatuko balu bezala.

Anaia-arrebek artean duten harremana ona da. Nahiz eta bikiak izan, ezberdinak direla konturatzen dira eta bere ahizpak askotan laguntza eskaintzen dio. Elkarrekin jolasten dira eta joko sinbolikoa askotan darabilte haien artean.

Ume honen familia nahiko handia da, eta nahiz eta amona-aitonarik ez izan, 5 izeba-osaba eta 7 lehengusu-lehengusina ditu, nahiz eta guztiak erdaldunak izan. Familiako kideek beti daude gurasoei laguntzeko prest eta asteburu askotan guztiak elkarrekin herrira doaz; modu honetan, Beñat lehengusu-lehengusinekin jolasten dagoen bitartean bere gurasoek atsedean hartu dezakete eta edozer gertatzen zaiolarik edo beharren bat duelarik familiakideek lagundu dezake. Gainera, herria nahiko txikia denez, bertako biztanle guztiek Beñat ezagutzen dute eta alderantziz. Hau ere, ezaugarri kognitiboa da, oroimena duelaren adierazle delako. Bertako biztanleek bera ezagutzea oso egokia da; izan ere, hitz egitea eta besteekin erlazionatzea asko gustatzen zaio, eta jendeak bere arazoa zein den jakinda modu egokian tratatzen dute.

Herrira ez doazen asteburuetan, mendira, hondartzara, Zizurtik ondoan dauden herrietara... ateraldiak egiten ohi dituzte. Ekintza hauek, normalean, Beñaten arrebaren lagunekin eta beraien gurasoekin egiten dituzte; izan ere, mutil honek egunero arreba asko behar du eta bere arrebari kasu gehiago eskeintzeko moduan egiten dute gurasoek. Hau aberasgarria da Beñatentzat, bere adina duten beste umeekin egoteko eta erlazionatzeko aukera duelako, eta gainera,

Hezkuntza eleanitza eta Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak: hiru kasu praktikoa

bere ingurua ezagutzeko aukera paregabea duelako. Bestalde, haur honen arrebaren lagunek euskarazko ereduari ere ikasten dutenez, haien artean jolasten daudenean hizkuntza honetan mintzatzeko saiatzen dira; eta hori gutxi balitz, guraso batzuk euskaraz dakitenez, Beñatekin eta bertara joaten diren ume guztiekin euskaraz hitz egiten dute.

Esan beharra dago, familia honek duen maila ekonomikoa aipatzea oso garrantzitsua dela; izan ere, segun eta zer nolako ekonomia maila izan, baliabide ezberdinak izango dituztelako. Nahiz eta amak lan ordaindurik egiten ez duen, aitaren lana nahiko ongi dabilenez maila ekonomiko ertaina dute. Daukaten maila izateak, egiten dituzten txangoak egitea, herrira joatea, umeek eskolaz kanpoko jarduerak egitea... ahalbidetzen die; eta honek guztiak Beñaten garapenean eragina dauka. Honek eragin sozio-kulturala dakar; izan ere, egiten dituzten bidaitxoetan haien umeek naturarekin ahalik eta gehien ikas dezaten saiatzen dira (adibidez, udazkenean basora joaten badira, bertan dauden hostoen formak lantzen dituzte, haien koloreak, zentzumenak lantzen dituzte: animalien soinua, hostoen eta zuhaitzen ehundurak ukitzen dituzte ...), haien adinetarako egokiak diren museoetara eramaten dituzte... Beraz, Beñat nahiko ongi estimulatuta dagoela esan daiteke.

Erlazio interpersonalak oso garrantzitsuak dira pertsona baten garapen integralean; izan ere, hauen bidez gizakiak errefortzu sozial garrantzitsuak jasotzen ditu. Lehen esan bezala, hitz egitea eta besteekin erlazionatzea du gustuko, eta ez du lotsarik edozeinekin hitz egiteko. Beñatek, psikoballet egiten du Down Sindromea duten beste ume batzuekin batera eta haiekin oso gustora egoten da jolasean. Klase hauek gazteleraz dira; izan ere, bertara doazen 10 umeetatik Beñat da D ereduari ikasten duen bakarra. Gainera, askotan, klasea bukatu eta gero, bertara joaten diren umeen gurasoak, taberna batetara joaten dira eta helduek haien artean hitz egiten, laguntza eta aholkuak ematen, esperientziak elkartrukutzen... dituzten bitartean, umeak parkean elkarrekin jolasean egoten dira. Bestalde, herrira doazenean eta Beñaten arrebaren lagunekin ateraldiak egiten dituztenean, erlazionatzeko aukera ere izaten du.

Eskolaren eremuari dagokionez, bere klasekideek oso ongi onartzen dute, nahiz eta txikiak izan, Beñat ezberdina dela konturatzen dira, asko babesten dute eta askotan haien laguntza eskeintzen diote. Gainera, oso maitekorra da,

eta eskolako nagusiek ere asko babesten dute eta ez dute inor iraintzea uzten. Nahiz eta honek bere autoestimuan oso eragin positiboak izan, ez du Beñat autonomia hartzen uzten eta hau nahiko kaltegarria da.

Bukatzeko, hizkuntzen arloa taula honetan laburbildu daiteke:

	Zein da?	Zenbat jasotzen du hizkuntza horretan? (Input)	Zenbat ematen du hizkuntza horretan? (Output)
H1	Gaztelera	- Etxean dagoenean. - Familiarekin dagoenean. - Psikoballet klaseetan.	- Gaztelera nahiko ongi hitz egiten du.
H2	Euskara	- Eskolan dagoenean - Bere arrebaren lagunekin eta haien familiarekin ateraldietara doazenean.	- Bere gelakoek duten mailatik pixka bat aldentzen da. - Nahiz eta euskaraz hitz egitea kostatzen zaion, euskaraz hitz egiten saiatzen da.

Beñaten ebaluaketa egin eta gero, honako Hezkuntza Premiak ondorioztatzen dira:

Arlo kognitiboan:

- “r” fonema ongi ahoskatzen duen irakaslea behar du berarekin hori lantzeko.
- Euskarri bisuala behar du ipuina ulertzeko.
- Idei nagusia azpimarratzen duen irakaslearen entonazioa eta keinuak behar ditu.
- Bere izenaren txantiloia behar du.

Hezkuntza eleanitza eta Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak: hiru kasu praktiko

- Ekintzak egiteko behar duen erritmoa eta denbora errespetatzea behar du.

Mugimenduzko arloan:

- Plastilinarekin eta pintzekin jolastu behar du.
- Igeriketara joan beharra dauka.

Oreka pertsonalaren arloan:

- Sentimenduak landu behar ditu.

Arlo afektiboa edo harreman interpertsonalak:

- Autonomia gehiago lortu behar du.

Gizartean txertatzeko arloan:

- Eskaera formulak erabiltzen ikasi behar ditu.

3.3.2. *Bigarren. kasua:*

Iñigo 4 urte dituen mutil bat da. Bere adinari dagokion bezala, Haur Hezkuntzako 2. zikloko 2. mailan dago; Barañainen bizi da eta Mendebaldean dagoen Jaso Ikastolara doa. Bere gurasoak gorra dira, eta nahiz eta berak ezgaitasun hori ez izan, ikastolako orientatzaileak froga estandarizatuak eta ez estandarizatuak diseinatu ditu bere ebaluaketa egiteko.

Mutil hau anaia bakarra da; eta bere gurasoak (Lutxi eta Inaxio) gorra dira. Aitak, 34 urte ditu eta Volkswagenean lan egiten du; amak, ordea, 36 urte ditu eta Noaingo aeroportuan lan egiten du. Etxean keinuen hizkuntzan (gaztelera eta euskaraz berdina dena) hitz egiten dutenez, txikitatik Haur Eskola batetara joan behar izan da ahozko hizkuntza menperatu ahal izateko. Dena den, gurasoek irakurketa-idazketa gaztelera garatuta daukate; izan ere, hori da gaur egun komunikatzeko beharrezkoa duten hizkuntza. Bestalde, amaren parteko aitona-amonek asteburuetan haurra zaintzen dute; eta haiekin dagoen bitartean, aho hizkuntza lantzen du. Hauek, nahiz eta gaztelera jakin, umeari euskaraz hitz egiten diote, eta hori izan da Iñigorentzat D erdua aukeratzeko arrazoia. Gainera, Haur Eskola batetara joan zen bertan aho hizkuntza ikasten joan zezan.

Lutxi eta Inaxioren eremu soziala nahiko txikia eta mugatua da. ASORNA elkartera joaten dira bertan dauden pertsona gorrekin kartetara jolastera, futbol

partiduak ikustera... Iñigo, bitartean, bertan dauden haur eta helduekin egoten da. Haiekin dagoen bitartean, komunikatzeko keinuen hizkuntza darabil. Gurasoei aspertuta dagoela eta etxera joan nahi duela askotan esaten die; baina hauek hain gustora daudenez, umeari goxoki bat erosi eta bertan geratzen dira berandu arte; are gehiago, behin baino gehiagotan Iñigo bertako aulkietan lo geratu da eta etxera besoetan eraman behar izan dute.

Eskolaz kanpo egiten dituen ekintzei dagokionez, igeriketa egitera klub pribatu batetara doa astean bitan eta ekintza hau euskaraz egiten du. Dena den, ekintza honek ez du ginontzeko umeei zuzenean erlazionatzera behartzen, beraz, nahiz eta bertan egon, askotan bakarrik eta inorekin hitz egin gabe egoten da. Beraz, ekintza honetan euskararekiko duen esposizioa txikia dela esan daiteke.

Lehen esan bezala, ume hau asteburuetan amaren gurasoek zaintzen dute, larunbatetan bai bere amak bai bere aitak lan egin behar dutelako. Hauek, 63 eta 67 urte dituzte; eta hezurretako arazoak dituztenez, etxetik oso gutxitan eta bakarrik beharrezkoa dutenean ateratzen dira. Honen ondorioz, Iñigo telebista ikusten, bideo jokuetara jolasten... egoten da. Laburbilduz, ume honen egoera sozio-kulturala oso eskasa dela ondoriozta daiteke.

Ekonomikoki egoera ona daukate. Aitari orain dela gutxi lanpostuz igo zioten; eta amak, 1500 euro inguru kobratzen ditu hilabetero. Gainera, aitaren parteko gurasoek egoera ekonomiko oso ona daukate, eta beharrezkoa denean diru-laguntza ederra ematen diete. Egoera honen ondorioz, Jaso ikastolan ikastea erabaki zuten; kontzertatua izanik eta dituen hezkuntza zailtasunak kontuan hartuta, esku-hartzea egokiagoa izango litzatekeelakoan.

Aipatzekoa da, ume honek memoria bisuala oso garatuta daukala, izan ere, txikitatik keinuen hizkuntza ezagutu duenez eta hau oso grafikoa eta espaziala denez, gehien garatu izan duen zentzumena ikusmena izan da.

Iñigo 4 urte izateko oso autonomoa da. Etxera telefonoz deitzen dutenean, egoerak behartuta, berak erantzun behar du, eta deitzen duten lekutik deitzen dutela, elkarrizketa horri berak aurre egin behar dio. Gainera, gaixorik dagoenean eta medikuarengana joaten direnean, bera izaten da medikuari

gertatutakoa azaltzen diona. Beraz, bere adinari ez dagozkion hainbat ardurak dituela esan daiteke.

Hizkuntzaren arloan, nahiz eta telebista gazteleraz ikusten duen, haurrak euskaraz eta keinuen hizkuntzan besterik ez du hitz egiten, eta horren ondorioz, zailtasun ikaragarriak ditu gaur egun Nafarroan komunikatzeko ezinbestekoa den hizkuntzan hitz egiteko. Bestalde, keinuen hizkuntza imitazioaren bitartez barneratzen ari da eta gai da bere gurasoei behar duena eskatzeko. Bere klasekoekin alderatuta, nahiz eta ahoskatzeko zailtasunak izan, ongi mintzatzen da euskaraz eta hitz batzuk laguntzarik gabe idazteko eta irakurtzeko gai da. Dena den, aditzak jokatzeko zailtasun handiak dauzka; ziur aski, bere gurasoek darabilten hizkuntzan aditzak jokatzeko ez direlako. Bestalde, askotan, keinuen hizkuntza erabiltzen du euskaraz hitz bat esaten ez dakienean. Hizkuntza idatzari dagokionez, lagunak izenak erraz identifikatzen ditu, 1etik-10erako zenbakien zerrenda daki eta hauen grafia kopuruarekin erlazionatzen ditu.

Ume honek, daukan errealitatea ulertu eta bere jokaera horren arabera moldatu behar izan du. Lehen esan bezala, gurasoen ezina dela bere adinari ez dagozkion hainbat ekintza egitera behartuta ikusten du bere burua. Honen ondorioz, bere haurtzaroa oso laburra izango dela ondoriozta daiteke, berehala helduen jokaera hartu beharko duela gurasoei lagundu ahal izateko. Izaeraz lasaia eta arduratsua da, bere sentimenduak azaltzea asko kostatzen zaio, eta oso barnerakoia da. Gainera, ume hau oso maitakorra da, baina gurasoek, ez diote kasu handirik egiten: oso gutxitan besarkatzen dute, oso gutxitan jolasten dira berarekin... Bileretara aitona-amonek joaten dira eta gurasoak ez; hau gurasoen inplikazioaren adierazle bat izan daitekeelarik. Gainera, ASORNA elkarteak, eskolako bileretara joateko interpretea eskatzeko aukera eskaintzen die eta Iñigoren gurasoek ez dute aukera hau aprobetxatzen. Egoera hau dela eta, aitona-amonek haurraren arduetan gurasoen rola hartzen ari dira.

Arestian ikusi dugun bezala, ingurunearekin daukan konexio maila oso eskasa da, bere adineko oso pertsona gutxirekin harremanetan da eta estimulu gutxi jasotzen ditu. Eskolan ikasteko daukan motibazioa oso handia da, eta hizkuntza ikastearekin oso motibatuta ikusten zaio; izan ere, askotan gauzak izenak zeintzuk diren galdetzen ditu, euskaraz hitz egiten saiatzen da... Irakaslearekin afektiboki oso lotuta dago eta edozer gauza egiten duelarik

irakaslearen onarpena eskatzen du. Ahoskatzeko dituen zailtasunak direla eta, logopedarekin ateratzen da 15 minutuz astean hirutan; eta berarekin ere oso harreman estua dauka.

Bere ikasgelako lagunekin ongi moldatzen da: laguntza eskatzen die, espontaneoki lagunek bera laguntzen dute, informazioa eskatzen diote... nahiz eta askotan bakarrik egotea erabakitzen duen. Txokoetan, patioan, jantokian... daudenean, askotan talde txikian jolasteko aukerak sortzen dira; baina Iñigo, horretaz paso egin eta bera bakarrik egoten da jolasean. Dena den, bere ikaskideei keinuen hizkuntza ikasteko interesa piztu die, askotan bera gelako protagonista bihurtzen da eta lagunei keinuen hizkuntzan zenbait hitz esaten erakusten die.

Iñigoren hizkuntzen gaitasuna honako taula honetan laburbildu daiteke:

	Zein da?	Zenbat jasotzen du hizkuntza horretan? (<i>Input</i>)	Zenbat ematen du hizkuntza horretan? (<i>Output</i>)
H1	Zeinu-mintzaira espainiarra (ZME)	- Etxean dagoenean - ASORNA elkartean dagoenean.	- Gurasoekin oinarrizko komunikazioa izateko gai da. - ASORNAn dauden helduek egindako galderak erantzuteko gai da.
H2	Euskara	- Aitona-amonarekin dagoenean. - Eskolan dagoenean. - Igeriketan.	- Bere adinekoekin alderatuta ongi mintzatzen da euskaraz. - Bere adinekoek bakarrik idazten ez dakiten hainbat hitz bakarrik idazteko gai da.

Hezkuntza eleanitza eta Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak: hiru kasu praktiko

H3	Gaztelera	- Telebista ikusten duenean.	- Oso hitz gutxi dakizki (50 aldera).
-----------	-----------	------------------------------	---------------------------------------

Ume honi diseinatutako frogak pasatu eta gero; eskolako inguruan honako Hezkuntza Premiak dituela ikusi da:

Arlo kognitiboan:

- Oinarrizko beharrak adierazkteko Gaztelera maila lortu behar du.
- Gainontzekoek oinarrizko eskaerak ulertzeko moduko ahoskapena lortu behar du.
- Aditzak nola jokutzen diren ikasi behar du.

Oreka pertsonalaren arloan:

- Bere adinaren mailara sentimenduak kontatzen eta azaltzen ikasi behar ditu.

Arlo afektiboa edo harreman interpertsonalak:

- Oreka emozionalerako garrantzizkoak diren helduen arreta behar du.
- Bere eskubideak defendatzen, bere nahaiak adierazten, bere jokua sozializatzen... ikasi behar du eta bere adineko hurrekin erlazionatu behar da.
- Inguruneko estimulazio gehiago behar du.

3.3.3. Hirugarren.kasua:

Wambui 5 urte dituen neska bat da eta Haur Hezkuntzako 2. zikloko 2. mailan dago. Orain dela urte bat etorri zela Keniatik bere aita eta amarekin. Eskolatze mailari dagokionez, izan beharko lukeena baina bat beherago dago, izan ere, ume etorkinak beti bere adinari dagokiena baino maila bat azpitik jartzen dira. Leitzan bizi ziren, baina amak Zizur Nagusian lana aurkitu eta bere alabarekin hona bizitzera etorri da. Orain arte, neskatxa hau Leitzako D ereduko Erleta eskolan egon da ikasten; baina orain, kurtso erdian (Otsailan) Erreniega Ikastetxera etorri da.

Wambui alaba bakarra da. Bere aitak 30 urte ditu eta Leitzan abeltzaina da; amak, ordea, Zizur Nagusian emakume heldu bat zaintzen du eta 28 urte

dauzka. Gurasoek swahiliz eta ingeleraz hitz egiten dute nahiz eta bere alabari bakarrik swahiliz hitz egiten dioten; eta Leitzan, euskara ikasten hasi dira, izan ere, Kenian, gutxiengoak diren hainbat hizkuntza daude (kikuyua adibidez) eta hauen alde daude. Gainera, aurrerantzean amak Leitzan lana aurkituko balu, bertara bueltatuko lirateke familiaren berrelkartzea egitearren eta bertan euskaraz jakitea ia ezinbestekoa den zerbait da.

Zizurren, eskola aurrean dagoen etxe bloke batean bizi dira. Amaren soldatarekin ezin dute pisu bat haientzat alokatu, beraz, bientzat logela bat alokatu dute eta sukaldea eta komuna beste Ekuadorreko familia (3-7 urte bitarteko haurrak dituztenak) batzuekin partekatzen dute. Bertan bizi diren familiek Wambuirri gazteleraz mintzatzen diote eta neskatxa ume horiekin jolasterakoan gazteleraz mintzatzen saiatzen da. Aita, zaintzen dituen abereen jabearen etxean bizi da; horrela, irabazten duen soldata aurrerantzean etxe bat erosteko edo bere alabak dituen beharretarako aurreztu dezake.

Neskatxa, ikastetxeko jantokian bazkaltzen du, eta 16:30etan, familiak laguntzeko dagoen kontziliazio programatik neska euskalduna jarri dute ama lanean dagoen bitartean bera zaintzeko; izan ere, bere familiako kide guztiak Kenian geratu ziren eta beraz, ez du inorekin geratzeko aukerarik. Neska honekin dagoen bitartean, euskara lantzeaz gainera, ludotekara, liburutegira, parkera... doa beste ume batzuekin erlazionatzeko. Dena den, neska honek gazteleraz dakienez, Wambuik beste hizkuntza honetan laguntza beharko balu, lagundu ahalko lioke.

Asteburuetan, amak ez du lanik egiten eta biak elkarrekin egoteko aprobetxatzen dute. Haien egoera ekonomiko dela eta, ezin dituzte gustatuko litzaiekeen gauza asko egin (zinemara joan, txontxongiloak edo antzerkiak ikustera joan...); nahiz eta Zizurren haurrentzako euskarazko zinema edo antzerkia jartzen dutenean (lehen esan bezala prezio merkea duenez) joaten diren. Dena den, hilabetean behin (gutxi gorabehera) Leitzara joaten direla asteburua pasatzera eta aita bisitatzera esan beharra dago. Gainera, han nahiko lagun talde ederra sortu dute eta haiekin oso gustura eta integratuta daude, nahiz eta hauek euskara oraindik oso ongi menperatzen ez duten.

Egoera hau ikusita, Wambui ebaluatzeko froga batzuk egitea erabaki da; batzuk estandarizatuak eta beste batzuk ez estandarizatuak.

Lehen esan bezala, Wambui kurtso Erdian (Otsailan) iritsi da eskolara. Horrelako kasuetan, haurra gutxinaka-gutxinaka hasten da eskolara joaten (hasieran bakarrik patio garaian, edo ordu bakar batzuetan...); baina neskatxa honek, ez zuenez bitartean inorekin geratzeko aukerarik, hasieratik egun osoan egon behar izan zen eskolan. Irakaslea jakinaren gainean zegoenez, bera iritsi zen egunerako haurrekin bere harrera landuta zuen. Klaseko lagunek (batzuk beste batzuk baino hobeto) swahiliz hitz batzuk (kaixo, zer moduz, agur...), abesti pare bat... ikasi zituzten; eta bera etorri zenean, hauek erabili zituzten berarekin komunikatzeko eta egoera erosoagoa bihurtzeko intentzioarekin. Gainera, iritsi zenerako, klasekoek bere izena ikasita zuten eta irakasleak bere argazki bat zenez, fisikoki haiekin ezberdina (baina aldi berean berdina) zela landuta zuten. Beraz, gela mailan Wambuiren harrera bikaina izan zela eta lehendabiziko momentutik bere erreferentziako gelan oso integratuta egon zela esan daiteke.

Arlo kognitiboari dagokionez, oso memoria ona duela ikusi da, izan ere, gaztelerazko edo euskarazko hitz bat esaten diozunean, bere esanahia ulertzen badu, ikasi eta erabiltzeko gai da. Hasieran, nahiko lekuz aldatuta zegoen, ez zen gai denbora luzez arreta mantetzeko, denbora guztian klasea edota bere gelakideak begiratzen egoten zen... Baina astebete eta gero, behin klaseko lagunekin erlaxionatzen hasi zela, arreta denbora luzez mantentzeko gai izan da. Ikasteko motibazioari dagokionez, oso ona dela esan daiteke: beti erne dago, irakasleak esaten dituen esaldi asko ikasteko errepikatzen ditu, askotan objektuak seinalatuz haien izena zein den galdetzen du... Hau egiterakoan, irakasleak errefortzu positibo bidez bere komunikatzeko asmoa zorientzen du; honen ondorioz, neska gero eta ziurrago ikusten du bere burua eta gelako lagunen aurrean gehiagotan hitz egitera ausartzen da.

Neska honek daukan komunikatzeko gaitasunaren inguruan, orokorrean, oso azkar hobetzen ari dela esan daiteke. Gainera, Haur Hezkuntzako giroa eta bertan egiten diren jarduerak aukera paregabea ematen dute ikaste prozesu hau aurrera eramateko. Izan ere, etapa honetan, denboraren antolamendua oso araututa dago, ikasleek jarduera ugari eta aberatsetan parte hartzen dute...

Egoera hauek onenak dira hizkuntza ikasteko (ez bakarrik etorkinentzat, baizik eta H2 edota murgiltze prozesuan dauden ikasle guztientzat ere), izan ere, ikasleek egin beharrekoa ondo eta azkar ulertzen dute eta ikasten ari diren hizkuntza hori lantzeko aukera ederra dutelako. Gainera, etapa honetan, askotan talde txikietan lan egiteko aukera ematen da, eta horrek, haur guztiei hizkuntza lantzeko aukera ematen die.

Erreniegara I.P.-ra iritsi zenean, aurretik Leitzan egonda zela nabaritzen zen; izan ere, bertako euskalkiko hitz eta aditz batzuk esaten zituen: “nik dot”, “gu ga”, “dozo”, “zun”, “estimatue”... Baina gutxi kostatu zitzaion berak zekizkien hitzak, euskara batuan zeintzuk ziren identifikatzea. Gainera, bertan zeudenean baserri batean bizi zirenez, euskaraz animalien izenak primeran dakizki baita koloreak ere; beraz, Wambui klasera irisi zen lehendabiziko egunetan, neskatzak bere buruarengan konfiantza har zezan gai hori landu zuten. Etxean swahiliz hitz egiten dutenez, euskaraz hitz bat nola esaten den ez dakienean, hizkuntza horretara jotzen duela; baina irakasleak Keniako hizkuntza hau ez dakienez, askotan mimika erabiliz, marrazkiak eginez... berak esan nahi duena asmatzen egoten da. Ignasi Vila-k Uharteko EIBZ-n emandako hitzaldian esandako moduan, hau teorikoki ez litzateke zorrozki murgiltze prozesua. Alde batetik, kasu honetan Leitzara iritsi zirenean, gurasoek ezin izan zutelako zein eredutan izen eman erabaki, bertan D ereduaren besterik ez dagoelako; eta bestalde, irakasleak ez duelako umearen H1 ezagutzen, eta beraz, ez dago berrelikadurarik. Neskatzak honen ama hizkuntza neurtzeko, bere amarekin hainbat froga egin izan ziren eta azkenean, Wambui swahiliz ongi ulertzen duela ikusi izan zen; eta hizkuntza honetan elkarrizketa bat mantentzeko gai dela. Gaztelarari dagokionez, bakarrik bere etxean bizi diren gainontzeko umeei hitz egiteko erabiltzen du; beraz, ez du hizkuntza honetan oso maila onik. Dena den, behin euskara nahiko finkatuta duenean, ez da uste gaztelera ikastea asko kostatuko zaionik, Zizurren bizi den bitartean, bere inguruan (liburutegian, ludotekan, parkean...) askotan hizkuntza hau entzungo duelako. Irakurketa-idazketa prozesuari dagokionez, bere izena idazten daki, baina ez daki ez swahiliz ez euskaraz beste inolako hitzik idazten, ezta laguntzarekin ere. Dena den, bere aurreko eskolatik bidalitako txostenean, euskaraz idazten

hasteko oso gutxi falta zaiola diote letrak eta beraien soinuak zeintzuk diren ezagutzen dituelako.

Arlo pertsonalari dagokionez, izaeraz lasaia, jatorra eta arduratsua da. Egoera berrien aurrean moldatzeko gai dela erakutsi du, nahiz eta normala den bezala hasieran arraro egon edota askotan negar egin. Aipatzekoa da, Leitzañ zegoenean bere amak lanik egiten ez zuenez, eskolan ez ezik, berarekin egoten zen denbora osoan; eta orain, aita hilabetean behin ikusteaz gainera, amak, bere lana dela eta, astean zehar oso denbora gutxi eskeintzen ahal dio. Egoera honek Wambuiren jokatzeko moduan eragina izan du, eta orain amarekin egoteko aukera duenean, bere hankara eutsi eta ez da bere ondotik aldentzen ezta beste hurrekin jolasteko ere; badirudi, bere aita “galdu” duen moduan, ez duela bere ama ere galdu nahi. Gainera, oso barnerakoia da eta asko kostatzen zaio bere emozioak, sentimenduak, egoerak, beldurrak... besteei (edota bere amari) kontatzea.

Lehen esan bezala, eskolan oso harrera ona izan du; eta udaletxeak jarritako baliabidearekin liburutegira, ludotekara edota parkera doanean, bertan dauden umeekin jolasten egoten da inolako arazorik gabe. Gainera, besteekin komunikatzeko hizkuntza arazo bat ez dela argi erakutsi du, nahiz eta gazteleraz oso gutxi jakin, mimika edota bere aurpegiko adierazpenak erabiliz besteekin jolasteko gai delako.

Hau guztia ikusita, Wambuiren hizkuntza gaitasunak taula honetan laburtu daitezke:

	Zein da?	Zenbat jasotzen du hizkuntza horretan? (<i>Input</i>)	Zenbat ematen du hizkuntza horretan? (<i>Output</i>)
H1	Swahilia	- Bere gurasoekin dagoenean.	- Elkarrizketak mantentzeko gai da. - Bere beharrak adierazteko gai da.
H2	Euskara	- Eskolan dagoenean. - Zaintzen duen neskarekin	- Animaliak eta koloreak dakizki. - Hainbat aditz eta hitz

		dagoenean. - Leitzan dagoenean.	ezagutzen eta erabiltzen ditu. - Entzuten dituen esaldiak errepikatu eta beste egoeratan erabiltzeko gai da.
H3	Gaztelera	- Bere etxean bizi diren beste umeekin dagoenean. - Liburutegian, parkean edota ludotekan dagoenean.	- Gaztelera hitz batzuk ulertzen ditu baina ez da hitz egiteko gai.

Frogak pasatu eta gero, honako Hezkuntza Premia Bereziak dituela ondorioztatu da:

Arlo kognitiboan:

- Oinarrizko beharrak euskaraz adierazteko maila lortu behar du.
- Bere klaseko lagunen izenak idatziz identifikatu behar ditu.
- Gaztelera hitz gero eta hitz gehiago ulertu eta hitz egin behar ditu.

Oreka pertsonalaren arloan:

- Bere pentsamenduak, zalantzak, beldurrak... adierazten ikasi behar ditu.

Arlo afektiboa edo harreman interpertsonalak:

- Bere amarekiko duen atxikimendua kontrolatzen ikasteko estrategiak behar ditu.
- Amarekin ez dagoenean, "galduko" duelaren sentimenduaren azalpenak landu behar ditu.
- Irakaslearen afektuaren adierazpen sistematikoa eta taldean integratzen bukatzeko laguntza behar du.

4. EMAITZAK ETA HAUEN EZTABAIDA

Behin kasuak ezagututa, erabakiak hartzeko honakoak kontutan hartuko dira. Taula hauek egiteko, Martinez Urmeneta, I.-k *Hizkuntza murgiltze prozesuan dauden heziketa behar bereziko ikasleen jarraipena* gidaliburua ikasleak ebaluatzeko diseinatutako tauletan oinarritu naiz; izan ere, Gortázar, P.-k “*La atención al as personas con TEA en contextos de diversidad lingüística y cultural*”-en proposatutakoa, nahiz eta oso egokia izan, autismorako oso espezifiko delako iruditzen zait.

Input

Taula honetan, ume bakoitzak hizkuntza ezberdinetan jasotzen duena ikusiko da. Hiru arlo ezberdinetan banatuta dago: Familia, eskola eta beste ingurune sozialak.

Familiako kideek haurrari zer nolako hizkuntzatan hitz egiten dioten jakitea ezinbestekoa da; honekin umearen ama hizkuntza zein den jakin daitekeelako. Bestalde, bere familiako beste kideek (aitona-amonak, osaba-izebak, anaia-arrebak...) berarekin komunikatzeko darabilten hizkuntza zein den jakiteak ere informazio asko eman diezaguke. Gainera, hauekin egiten dituzten ekintza ezberdinetan haurrak entzun dezakeen hizkuntza jakitea ere garrantzitsutzat jotzen da.

Eskolaren eremuan jasotzen duen hizkuntza zein den jakitea oso baliagarria zaigu umeak berenganatzen dituen hizkuntzak eta bakoitzaren kantitatea jakiteko momentuan, eskolan egunean zehar ordu asko pasatzen dituelako. Umeek, beraien klasekideekin erlazionatzerakoan (bai gelan, bai gelatik kanpo), hauekin eta haien arten darabilten hizkuntza zein den jakitea oso garrantzitsua da. Tutoreak umei zein hizkuntzatan hitz egiten dien jakitea garrantzitsua da, haur batzuentzat irakasleak darabilen hizkuntza haien H1 izango delako, baina beste batzuentzat haien H2 edo H3 izan daitekeelako. Bestalde, irakasleak, nahiz eta ikasleei hizkuntza bakar batetan hitz egiten dien, hurrekin amankomunean zenbat hizkuntza izan ditzaketen jakitea interesgarria izan daiteke; izan ere, haur batek irakasleari ezagutzen duen hizkuntza batetan (nahiz eta irakasleak ikasleekin hizkuntza hau ez erabili) hitz egiten badio, bien

artean komunikazioa eta berrelikadura egon daiteke, baina haurrak darabilen hizkuntza irakasleak jakingo ez balu, ez legoke komunikaziorik egoteko aukerarik.

Azkenik, haurren ingurune sozialean (bere herrian adibidez) hitz egiten den hizkuntza zein den jakiteak, umeak ingurune horretan dagoenean zein hizkuntzatan hitz egiten zaion jakitea suposatzen duenez, honen inguruan informazioa izatea garrantzitsutzat jotzen da.

		H1	H2	(H3)
FAMILIAN	Haurri honako hizkuntzan hitz egiten diote:			
	- Aitak			
	- Amak			
	- Beste batzuk			
	Haurrak honako ekintzatan entzuten duen hizkuntza:			
	- Eskolaz kanpoko ekintzatan			
- Telebistan				
- Beste ekintza batzuetan				
ESKOLAN	Bere klasekideek darabilten hizkuntza:			
	- Gelan			
	- Patioan, jantokian...			
	Tutoreak darabilen hizkuntza			
	Tutoreak haurrarekin amankomunean d(it)uen hizkuntza(k)			
Laguntzako irakasleek estimulatzen duten hizkuntza				
INGURUNE SOZIALEAN	Haurraren ingurune sozialean darabilten hizkuntza			

Hezkuntza eleanitza eta Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak: hiru kasu praktikiko

Output

Taula honek, ume bakoitzak hizkuntza bakoitzean ahoz eta idatziz emateko gai dena erakutsiko digu. Horretarako, profesional ezberdinen eta familiako kideen iritziak kontuan hartuko dira. Proposatutako kasuak Haur Hezkuntzakoak direla kontutan hartu behar da, hau horrela izanik, idatziz oso gutxi ekoiztu ahal izango dutelako.

		IRITZIAEN LABURPENAK	
AHOZKOAN	H1	<ul style="list-style-type: none"> - Tutorearena - PT-arena - Logopedarena - Orientatzailearena - Familiarena 	
	H2		
	(H3)		
IDATZIZKOAN	H1		
	H2		
	(H3)		

Beste batzuk

Atal honetan, erabakiak hartzeko kontutan hartu beharreko beste hainbat ezaugarri aipatuko dira: familiaren eragina, motibazioa...

- *Erabakia*

Asko pentsatu eta eztabaidatu eta gero, ikastetxeko profesionalek familiaren iritziarekin batera adostutako erabakia:

- Ereduz aldatzea
- Etapan urte bat gehiago ematea
- D ereduan jarraitzea
- Hezkuntza Bereziko ikastetxe batetara pasatzea
- Transizio gela batetara aldatzea
- Beste batzuk

- *Esku-hartzea*

Behin erabakia hartuta, hurrengo pausora abiatuko gara: esku-hartzea.

Ikasteko prozesuetan, ikasle guztiak desberdinak dira jarreran, interesetan, dituzten motibazioetan, gaitasunetan, ikasteko estiloetan eta aurretik bizi izandako esperientzietan. Hau kontuan izanik, ikasleen aniztasunari normalizazioa, konpentsazioa, berdintasuna, ekitatea, integrazioa eta inklusioa abiaburutzat harturik erantzun behar zaio.

Ikasle bakoitzak behar duenaren arabera, hezkuntza-neurri arruntak edo bereziak hartuko dira. Arruntak, nahitaezko elementuak (helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak) aldarazten ez dituztenak izango lirateke; eta bereziak, nahitaezko elementuak edo/eta sarrera elementuak aldarazten dituztenak.

Bestalde, Curriculum Egokitzena, ikasleen premiei hezkuntza-erantzuna emateko asmoz, curriculum-osagaiei buruz (sarrera elementuak edo oinarritzkoak) erabakiak hartzeko prozesua da. Bi maila daude: Curriculum maila esanguratsua eta ez esanguratsua. Esanguratsuak edo garrantzitsuak, ikasleak bi urte baino gehiagoko atzerapena duenean edo beste ziklo batean

Hezkuntza eleanitza eta Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak: hiru kasu praktiko

mugitzendenean dira. Ez esanguratsuak, ordea, ikasleak bi urte baino gutxiagoko atzerapena duenean eta ziklo berdinean mugitzen denean dira.

Proposatutako kasu bakoitzean, ikasleei ikusten zaizkien beharren arabera prestatuko da esku-hartzea, beti ere ikastetxe eta familia mailak kontuan hartuz.

H1: Gaztelera

H2: Euskara

4.1. Lehenengo kasua:

Input

		H1	H2
FAMILIAN	Haurrari honako hizkuntzan hitz egiten diote:		
	- Aitak	X	
	- Amak	X	
	- Beste batzuk	X	
	Haurrak honako ekintzatan entzuten duen hizkuntza:		
	- Eskolaz kanpoko ekintzatan	X	
- Telebistan	X		
- Beste ekintza batzuetan		X	
ESKOLAN	Bere klasekideek darabilten hizkuntza:		
	- Gelan		X
	- Patioan, jantokian...	X	
	Tutoreak darabilen hizkuntza		X
	Tutoreak haurrarekin amankomunean d(it)uen hizkuntza(k)	X	X
Laguntzako irakasleek estimulatzeko duten hizkuntza		X	
INGURUNE SOZIALEAN	Haurraren ingurune sozialean (herrian adibidez) darabilten hizkuntza	X	

Hezkuntza eleanitza eta Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak: hiru kasu praktikoko

Output

		IRITZIEN LABURPENAK	
AHOZKOAN	H1		Guztiak ados daude gazteleraz euskaraz baino askoz hobe mintzatzen dela esaterakoan. Tutoreak, askotan gazteleraz hitz egitera jotzen duela dio; baina adina honetan, orokorrean, haur guztiek horrela egiten dutela, hau da, ez dela Beñatek bakarrik egiten duen zerbait. Gurasoek, etxean berarekin gazteleraz hitz egiten dutenean, nahiz eta ahoskapen arazoengatik ulertzeko zailtasunak izan, oinarrizko beharrak adierazteko gai dela esaten dute.
	H2	<ul style="list-style-type: none"> - Tutorearena - PT-arena - Logopedarena - Orientatzailearena - Familiarena 	Tutoreak, bere klasekoekin alderatuta, nahiko atzerapena daukala eta euskaraz ulertzea kostatzen zaiola dio, dena den, beti erne ikusten zaiola eta hizkuntzan interesa daukala erakusten du eta. PT irakasleak, hizkuntzaren atzerapena duelaekin bat dator, baina bere erritmoa errespetatuz gero eta laguntzak jasotzekotan, oinarrizko euskara maila lortuko duelakoan dago. Logopedak, gazteleraz eta euskaraz ahoskatzeko zailtasun berdinak dituela dio. Beñaten gurasoek, bere arrebarekin jolasten dagoenean hitz batzuk euskaraz esaten dituztela diote eta horrek haien artean oso lotura polita sorzen duela.
IDATZIZKOAN	H1		Bi hizkuntzatan etapa diferentziatuan dago.
	H2		

Beste batzuk

Kontutan hartu beharra dago, familia hau Barasoaindik Zizurrera etorri zela bere seme-alabak euskaraz ikasi ahal izateko. Beraz, gurasoek haien umeak euskaldunak izateko ahaleginak egin behar izan zituzten eta hori baloratzekoa da. Gainera, gurasoen espektatibek eragin handia dute umearen garapenean; eta kasu honetan, gurasoek umea euskalduna izatea nahi dute, nahiz eta jakin badakite, bere zailtasunak izanda ez duela oso maila ona lortuko.

Bestalde, ikastetxeko orientatzaileak, bi anaia-arrebak eskola berdinean ikasteak, familiari batasuna ematen diola esaten du. Hau familia honen kasuan oso garrantzitsua da; Beñatek Down Sindromea duenez eta horren ondorioz ikasketetan bere arreba bikiaren erritmo ezberdina daramanez, gutxienez biak ikastetxe berdinean ikasten egotea berdintasuna ematen die.

4.1.1. Erabakia:

Hau guztia ikusi eta aztertu eta gero, Hezkuntza Laguntza Unitateak familiaren adostasunarekin batera, Beñat Erreniega Ikastetxean ikasten jarraitzea erabaki dute. Euskara denborarekin barneratuko duelakoan daude; ez du oso maila altua lortuko, baina hizkuntzaren oinarritzko gaitasunak lortuko ditu. Gainera, umearen gurasoek Beñat euskara ikasteko egindako ahaleginak kontuan hartzea ezinbestekoa da; eta bestalde, bi anaia-arrebak eskola berdinean ikasten egoteak pisu ikaragarria duenez, profesionali erabaki hau hartzera eraman die.

4.1.2. Esku-hartzea:

Dena den, nahiz eta D ereduan ikasten jarraitzen duen, umearen eboluziorako profesionalekin eta familiarekin eskuhartzea proposatzea ezinbestekoa izango da. Hona hemen egindako proposamena:

1. Erabakiak ikastetxe mailan:

Ikastetxean, aniztasunari erantzuteko plana dago, eta Beñat plan honen isladatzea izango da. Ume hau bere eskolan oso integratuta dago; baina geroago etor daitezkeen arazoak saihesteko, tutore bakoitzak bere ikasle

Hezkuntza eleanitza eta Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak: hiru kasu praktikiko

taldearekin egoera landuko du. Gainera hau, ez da bakarrik Beñatentzat martxan jarriko den zerbait; baizik eta guztiak ezberdinak garela kontuan izanik, eta edozein gelatan arazoak izan ditzakeen norbait egon daitekeela kontuan izanik, baliagarria izango da.

2. Erabakiak ziklo eta ikasgela mailan:

Ikasle honen lan metodologia eredu ekologiko eta funtzionalean oinarrituko da; bere ingurunean mugitzeko eta hura ezagutzeko behar duena eskura dezan. Horretarako, zentzumen anitzeko estimulazioa landuko da; bere gorputzeko zentzumenekin esperimentatuz bere inguruneke informazioa lor dezan:

- Proiektuen bidezko ikaskuntza, lan kooperatiboa eta parte hartzea sustatuz.
- Ikaskuntza intzidentala; hau da, edozein egoera arrunta aprobetxatu umeak momentu horretan daukan interesetatik habiatuz hizkuntza arloa lantzeko adibidez.
- Jokabide-eredu edo modelaketa; adibidez, ipuinen edo istorioen bidez kontzeptu, jarrera, jokaera... berriak ikastea.
- Dramatizazioa: gero bizitza errealean bizi beharko dituen egoeren inguruko rol jolasak egitea.
- Eguneroko arazoaren ebazpena ustezko egoerak (edo errealak) jarritz.

3. Erabakiak familia mailan:

- Gurasoak eskolarekin elkarlanean arituko dira, haurren garapenaren informazioa trukatu eta aholkuak jasotzeko.
- Haurrari jokabide desegokiak zuzendu eta joakbide egokiak momentuan indartuko dizkiote.
- Hizkuntza (Beñaten H1) garbia eta ulertteraza erabiliko dute komunikazioa bermatzeko.
- Autonomia bultzatuko dute.
- Beñat bere arrebarekin batera haurrentzako erakustaldietara (euskaraz ahal bada, hobe) eramango dute.

- Gurasoek euskaraz dakizkiten hitzak (nahiz eta gutxi izan eta kaixo, agur, zer moduz?... motatakoak) Beñatekin eta bere arrebarekin hitz egiterakoan erabiliko dituzte.
- Gurasoek, ahal bada aitak (Beñatek bere falta somatzen duelako), gauero ipuin bat kontatuko die (Beñati eta bere arrebari) eta gero, ipuinean gertatutakoaren inguruan hitz egingo dute.

4. Jarraituko duen CEI:

Curriculum egokitzapen hau egiteko, 2012-2013 ikasturtean “Hezkuntza Inklusiborako Proposamen Pedagogikoak” ikasgaiari Luiz Iza irakaslearekin ikasitakoan oinarritu naiz.

Beñati curriculum egokituko zaio. Ume honen hizkuntza curricularra euskara izanik, hizkuntza ez diren gainontzeko arloetan ere aldaketak egin beharko dira hizkuntza honetara ahalik eta hobekien egokitu dadin:

- Curriculumeko sarrera elementuak
 - Egokitzapenak giza baliabide eta antolakuntzan

Beñaten dituen beharrei erantzuteko honako hauek beharko dira:

 - Laguntzako irakaslea egunero hainbat orduz sartuko da haurra integratuta dagoen taldean.
 - Logopedaren laguntza beharko du astean hirutan 20 minutuz bere ahoskapenean dituen zailtasunak hobetzeko.
 - Pedagogia Terapeutikoko irakaslea egunero ordu batez umea integratuta dagoen gelara sartuko da.
 - Egokitzapenak espazioetan eta alderdi fisikoetan
 - Ikaslearen erreferentziako gela komunaren ondoan kokatuta egotea bere autonomia eta higiena lantzeko.
 - Egokitzapenak hornikuntza eta baliabideetan
 - Haurra motibatuko duten material ezberdinak erabiliko ditugu. Honetarako, haurraren interesak kontuan hartuko dira.

- Zentzumen anitzeko ikaskuntza eman dadin, material manipulagarri ezberdinak erabiliko ditugu: area, egurra, kortxo...
- Denboraren egokitzapena
- Beñatek dituen zailtasunak ikusita, jarduerak egiterako orduan beharrezkoa duen denbora (bera klasekoek behar dutena baino gehiago) emango zaio.
- Curriculum oinarrizko osagaiak
 - Ebaluazio prozedurak (ebaluazio tresnak eta teknikak)
 - Behaketaren bidez ebaluatuko da.
 - Zentzumen anitzeko ikaskuntza sustatuko dugunez, honen arabera eta honetan oinarrituz ebaluatuko dugu.
 - Oinarrizko gaitasunak ebaluatzeko taula bat egingo dugu. Bertan, horizontalki gaitasunak banan banan azalduko dira; eta bertikalki (zutabeetan), ez du lortu, laguntzarekin edo laguntzarik gabe egiteko gai den kutxatilik azalduko dira, zeinak irakasleak “X” batez markatu beharko dituen; baita hauek ebaluatzeko data ere.
 - Egokitzapen metodologikoa (eredu ekologikoa)

Umearentzako zehatzagoak diren orientazio metodologikoak hurrengoak izango dira:

 - Jarduera motzak eta anitzak proposatzea.
 - Hasieran jarduerak egiteko laguntza eskeiniko zaio bere arrakasta bermatzeko; behin bakarrik egiteko gai denean, laguntza desagertzen joango da.
 - Bere jokaera txarrak konpontzea; eta ongi egiten dituenak berehala erreforzatzea.
 - Sentimenduak ulertzen lagunduko dizkion jarduerak burutzea. Horretarako, Manuel Segurak “*Relacionarnos bien*” liburuan proposatutako hainbat jarduera bere adinera moldatuko dira.

- Arazoak edota liskarrak daudenean bitartekari bezala jokatu dugu bera eta gainontzeko umeen artean.
 - Hizkuntza (H2) erabili behar dituen egoerak sortu. Gauzak eskatzera bultzatu eta haurrak ahoz ez badu egiten (saiatzen behintzat), ez ulertuarenak egin.
 - Berarekin hitz egiterakoan hizkuntza gardena eta esaldi motzak erabili argigarriak zaizkion keinuekin lagunduz.
 - Bere ikaskideei baino hezkunza saiakera gehiago eman eta hauetara iristeko denbora gehiago.
- Jarduera motak eta jardueren sekuentzia
- Jarduera motzak eta anitzak proposatuko zaizkio
 - Bere inguruneko gauzen inguruko jarduerak egingo ditugu, gero berak edozein testuinguru errealean erabili ahal izango dituenak.
 - Jarduerak bere ikasteko estiloari jarraituz egingo dira. Kanal bat baino gehiago erabiliko dugu informazioa eskuratzeko (zentzumen anitzeko ikaskuntza)
- Helburuak eta ebaluazio irizpideak:
- Haur Hezkuntzako curriculumaren hiru arloei dagozkien hurrengoak lirateke:
- Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala
 - Jatorduetan platera jartzean bera bakarrik jaten hastea; eta bukatu arte despistatu gabe mantentzea.
 - Behar duenean komunera bakarrik joatea eta etortzea.
 - Mukiak kentzeko beharra duenean esatea eta kentzea.
 - Berokiko botoiak nahiz kremaileak igo eta jaistea.
 - Zapatak eta galtzerdiak bakarrik jartzea.
 - Behar duenean laguntza eskatzea.
 - Erabilitako materiala biltzea.
 - Giza figura irudikatzen hastea.
 - Motrizitate lodia:
 - Lehenik laguntzarekin eta gero gabe salto egitea.

- Oreka mantentzea.
- Pilota bota, jaso eta boteak ematea.
- Motrizitate fina:
 - Plastilina: lantzea, zimikoak egitea, zapaltzea, moldeak erabiltzea, tamaina ezberdinetako bolatzoak egitea...
 - Guraizeekin trazu zuzenak moztea.
 - Ordenagailuaren oinarriko erabilpenak gauzatzea.
 - Korapiloak egin eta askatzea.
- Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikapena
 - Ahozko hizkuntzan:
 - “r” fonemaren ahoskapena lantzea.
 - H2 espontaneoaren erabilera handiagoa lortzea: eskatzea, deitzea, agurtzea, eskertzea...
 - H2ko hiztegia aberastea: animaliak, elikagaiak, jantziak...
 - Enuntziatuen luzapena ematea eta bide batez, edukazio oneko esaldiak ikasi: “ogia” eskatu ordez, “ogia nahi dut, mesedez” esatea.
 - Abestiren bat buruz ikastea edo zati bat behintzat.
 - Ipuin edo gertakari ezagunen inguruko galderei erantzutea.
 - Hizkuntza idatzian:
 - Bere izena beste batzuen artean identifikatzea
 - Tamaina handiko letra manipulagarriekin bere izena osatzea txantiloirik gabe.
 - Bere izena idazten jakitea.
 - Matematikako hizkuntzan:
 - Kolorerik ezagunenak ezagutu eta aipatzen jakitea.
 - 1-5 artean zenbaki zerrenda jakitea.
 - 1-5 zenbakiak kantitate egokiarekin nahiz grafismoekin erlazionatzea.
- Ingurua ezagutzea

- Gainerako ikaskideekin jolastea eta elkarrekintzan aritzea: baloiarekin, jostailuekin...
- Asteko egunak egoera/ekintza zehatzekin harremantzea.
- Hainbat denda eta horietan saldu ohi diren produktu batzuk ezagutzea.

- CEI jarraipena

Eskola mailan, hilabetearen behin tutorea, entzumen eta hizkuntzako irakaslea, orientatzailea eta laguntzako irakaslea koordinazio bileran bilduko dira, prozesuaren erregistroa (lehen azaldutako moduan; hau da: ez du lortu, laguntzarekin edo lortu du eta hauek ebaluatzeko data) gauzatuz eta kasuaren jarraipena eginez.

Familia mailan, hilabetearen behin (edo zerbait aipagarria egotekotan haurraren bila datozenean adibidez) tutorea nahiz gurasoak elkartuko dira informazioa elkartrukatzeko eta egingo duten lana modu egokian koordinatzeko gurasoei eskolako lana osatzeko jarraibideak emanaz.

Horretaz gain, kurtso amaieran esku hartzearen balorazioa egingo da eta aurrerapen esanguratsuak eman diren aztertuko da.

4.2. Bigarren kasua:

H1: Zeinu-hizkuntza
H2: Euskara
H3: Gaztelera

Input

		H1	H2	H3
FAMILIAN	Haurri honako hizkuntzan hitz egiten diote:			
	- Aitak	X		
	- Amak	X		
	- Beste batzuk		X	
	Haurrak honako ekintzatan entzuten duen hizkuntza:			
	- Eskolaz kanpoko ekintzatan		X	
- Telebistan			X	
- Beste ekintza batzuetan	X	X		
ESKOLAN	Bere klasekideek darabilten hizkuntza:			
	- Gelan		X	
	- Patioan, jantokian...		X	X
	Tutoreak darabilen hizkuntza		X	
	Tutoreak haurrekin amankomunean d(it)uen hizkuntza(k)		X	X
Laguntzako irakasleek estimulatzen duten hizkuntza		X		
INGURUNE SOZIALEAN	Haurren ingurune sozialean (herrian adibidez) darabilten hizkuntza		X	

Hezkuntza eleanitza eta Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak: hiru kasu praktiko

Output

		IRITZIEN LABURPENAK		
AHOZKOAN	H1	<ul style="list-style-type: none"> - Tutorearena - PT-arena - Logopedarena - Orientatzailearena - Familiarena 	Zeinu-hizkuntzak ez du ahozko adierazpenik. Dena den, esan beharra dago, hizkuntza honetan aditzak ez direla jokutzen eta horrek zailtasunak sortu diezazkiokeela. Hizkuntza honetan nahiko trebea da, eta bere gurasoen imitazioaren bidez hitz asko ikasten ditu. Eguneroko gauzen edota ekintzen inguruan elkarrizketa bat mantentzeko gai da.	
	H2		Guztiak bat datoz bere gelakoekin alderatuta oso euskara maila ona duela esaterakoan. Oinarrizko elkarrizketa bat mantentzeko gai da. Ahoskatzeko zailtasunak ditu, bai euskaraz bai gazteleraz ere.	
	H3		50 hitz baino gutxiago dakizki hizkuntza honetan eta ez da gai gazteleraz esaldi bat ongi egituratzeko.	
IDATZIZKOAN	H1			Zeinu-hizkuntzak ez du idatzizko adierazpenik. Tutoreak bere adinekoekin alderatuta aurreratuta dagoela dio. Bera bakarrik euskaraz hitzak idazteko gai da eta ez dauka bere klasekoen izenak idatziz identifikatzeko zailtasunik. Gazteleraz dakizkien hitzak laguntzarekin idazteko gai da.
	H2			
	H3			

Beste batzuk

PT irakasleak eta orientatzaileak oso kezkatuta daudela diote, izan ere, Iñigo bere gurasoen “ahotsa” izanik, gaztelera edozertarako erabili beharko du; beraz, hizkuntza honetan oinarritzko gaitasunak lortu behar dituelakoan daude. Gurasoak, hasieran, ez zeuden horrekin ados; eta haiek bakarrik komunikatzeko gai zirela eta ez zutela bere semearen beharrik zioten. Baina azkenean, beraien semeak iraganean lagundu diezaiekeela onartu dute.

4.2.1. Erabakia:

Asko pentsatu eta gero, A eredura pasatzea erabaki da; izan ere, gaztelera hizkuntzaren oinarritzkoak jakitea beharrezkoa izango du iraganerako. Modu honetan, gaztelera ikasteaz ganera, aitona-amonekin euskara praktikatzen jarraitu ahal izango du, eta hori gutxi balitz, hauek ere gaztelera dakitenez, eskolan duen edozein arazorekin lagundu ahalko diote.

Nafarroako Boletin Ofizialean jartzen duen bezala, edozeinek egin dezake ereduz aldatzeko txostena; baina zuzendariak dauka azkeneko hitza. Kasu honetan, orientatzaileak egin du eta zuzendaria ados azaldu da egoera honekin; beraz, Iñigo ereduz aldatuko da.

Dena den, gaztelera hizkuntza maila oso murrizta duenez, Haur Hezkuntzako etapan urte bat gehiago egotea proposatu da. Horretarako, Nafarroako Hezkuntza Departamentuako web orrialdean, orientazio txostenak atalean “Haur Hezkuntzako etapan urte bat gehiago egoteko txostena” bete dute (Begiratu gehigarriak 3). Normalean, 5 urtetan errepikarazten da; baina kasu honetan, behin ereduz aldatu behar dela eta klasekide berriak izan behar dituela, 4 urtetan errepikatzeko proposamena onartu da.

Nahiz eta ereduz aldatzea erabaki eta horren ondorioz beste eskola batetara joango den, Jaso ikastolak hezkuntza erantzuna prestatu du Iñigoren garapenean laguntzeko, sortuko diren Hezkuntza Premiei aurre egiteko eta bertan lan egiten duten profesionalekin errespetuz jokatzeko.

4.2.2. esku-hartzea:

Ume honen eskuhartzea, bi esparrutan emango da: eskolan eta familian.

1. Ikasgela mailan:

Argi geratu behar da, Iñigok ez duela Haur Hezkuntzan urte bat gehiago iraungo bere gaitasun kognitiboagatik, H3an duen atzerapenagatik baizik. Zailtasun hau dela eta, espezialisten beharra izango du.

- Logopeda:

Profesional honek zeinu-mintzaira dakienez, tutorea eta Iñigoren artean komunikazioa egon dadin, tutoreari oinarrizko zeinu eta esaldi batzuk erakutsi dizkio: kaixo, agur, zer moduz?, zerbait behar duzu?, komunera joan nahi duzu?... Gainera, umea 15 minutuz astean hirutan berarekin aterako da (Jason egiten zuen berdina) dituen ahoskapen arazoak lantzeko.

- Pedagogia Terapeutikoko irakaslea:

Berez, ez du profesional honen beharrik, lehen esan bezala, ez duelako inolako gaitasun kognitiborik. Dena den, haurra taldean nola integratzen den ikusteko, tutorea laguntzeko, haurrarekin hizkuntza lantzeko... umea integratuta dagoen ohiko klasean egunero ordu batez sartuko da.

- Tutorea:

Lehenik eta behin, umearen integrazioaz arduratu beharko da; izan ere, gainontzeko ume guztiak 3 urtetan elkarrekin egon dira bera izan ezik. Integrazio hori errazagoa izan dadin, adibidez, guztien izenak ikasteko jolasak (hizkuntza maila altua behar ez dutenak, noski) proposatuko ditu. Gainera, logopedak zeinu-hizkuntzan irakatsitako hainbat hitz eta esaldi erabiliko ditu (aho hizkuntzarekin batera) umea erosoago sentitu dadin; gainera, hizkuntza hau ikastea guztientzat onuragarria izan daitekeenez, umea protagonista bilakatuko da eta zenbait hitz erakutsiko die.

Haurraren H3 lantzeko eta irakasteko, hasieran argazkiak erabiliko dituzte zeinak azpian idatziz zer den azalduko den, horrela, objektua bere idatzizko adierazpenarekin lotzen joango da (Iñigo H2an irakurketa-idazketan bere mailakoekin alderatuta aurreratuta dago, beraz, ez du zertan gazteleraz

zailtasunik izan behar). Gainera, hau ez da ume honentzat bakarrik onuragarria izango, baizik eta gela horretan egongo diren eta zailtasunak dituzten beste ume batzuentzat ere.

Bestalde, Iñigok, eguneroko esaldiak (komunera joan nahi dut, ura edan nahi dut, jolas dezaket...) menperatu behar ditu, horrekin egitura linguistikoa lantzen eta hiztegia ikasten joango delako.

Deskribapenean esan bezala, Iñigok, bere sentimenduak adierazteko zailtasunak zituen; hori dela eta, bai berarekin bai klaseko beste umeekin ere Manuel Segurak "*Relacionarnos bien*" liburuan proposatzen dituen hainbat jarduera egingo dira. Dena den, taldean ongi integratuta ez dagoen arte ez dira horrelako ekintzak martxan jarriko.

2. Familia mailan:

Umea gazteleraz kirolen bat egitera (berak aukeratu dezake zein nahiago duen) eta plastikarekin zerikusia duen beste ekintza batetara izen ematea gomendatzen da. Hauetan, forma linguistiko ezberdinak ikasiko ditu, kokapen espaziala, hizkuntza landuko du, erlazionatuko da... Gainera, umea ekintzatan dagoen bitartean, gurasoak ASORNARA joan daitezke. Hemendik 2-3 urtetara, antzerkia egitera izen ematea egokia litzateke, horrela, besteekin harremantzeaz gainera, testuak (hasieran esaldiak) buruz ikasiko lituzke eta honekin batera hizkuntza eta esamoldeak.

Asteburuetan, aitona-amonarekin dagoenean, euskaraz hitz egin dezake; horrela nahiz eta eskolan gazteleraz ikasten ariko den, ez du euskera ahaztuko. Bestalde, haiekin dagoenean parkera joatea komenigarria litzateke beste haur batzuekin harremantzeko.

Lehen ere telebista gazteleraz ikusten zuela aprobetxatuz, ikastetxeko Hezkuntza Laguntza Unitateak, hezigarriak eta hizkuntza lantzeko baliagarriak izan daitezkeen hainbat marrazki bizidunen DVDak pasatuko dizkie gurasoei, horrela, telebistan edozer gauza ikusi baino, hizkuntza lantzeko baliagarriak izando zaizkion eta bere adinekoentzat diren marrazkiak ikusiko ditu.

Bukatzeko, kasuaren deskribapenean aipatu bezala, ume honek askotan helduaren rola zuela aipatzea ezinbestekoa da. Bere gurasoen ezina dela eta, askotan bere adinari ez dagozkion hainbat ekintza egitera behartuta ikusten du bere burua. Hau, ez du zertan umearentzat txarra izan behar, are gehiago, bere autoestimua hobetzeko edota erantzunkizuna emateko baliagarria izan daiteke, beti ere, estresa edota antsietatea sortzen ez dion bitartean.

H1: Swahilia

H2: Euskara

H3: Gaztelera

4.3. Hirugarren kasua:

Input

		H1	H2	H3
FAMILIAN	Haurri honako hizkuntzan hitz egiten diote:			
	- Aitak	X		
	- Amak	X		
	- Beste batzuk		X	X
	Haurrak honako ekintzatan entzuten duen hizkuntza:			
	- Eskolaz kanpoko ekintzatan		X	X
- Telebistan	-	-	-	
- Beste ekintza batzuetan		X	X	
ESKOLAN	Bere klasekideek darabilten hizkuntza:			
	- Gelan		X	
	- Patioan, jantokian...		X	X
	Tutoreak darabilen hizkuntza		X	
	Tutoreak haurrekin amankomunean d(it)uen hizkuntza(k)		X	X
Laguntzako irakasleek estimulatzen duten hizkuntza		X		
INGURUNE SOZIALEAN	Haurren ingurune sozialean darabilten hizkuntza		X	X

Hezkuntza eleanitza eta Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak: hiru kasu praktiko

Output

		IRITZIEN LABURPENAK	
AHOZKOAN	H1		Amarekin egindako froga ez estandarizatuan, swahiliz elkarrizketa bat mantentzeko eta bere beharrak adierazteko gai dela ikusi da. Gainera, tutoreak, hitz bat euskaraz esaten ez dakienean, swahiliz esaten duela dio; beraz, nahiko maila ona duela esan daiteke.
	H2	<ul style="list-style-type: none"> - Tutorearena - PT-arena - Logopedarena 	Tutoreak dionez, bere uste apalean neskatxa honek bere mailari dagokion euskara (edo maila hobeagoa) azkar lortuko duela dago; izan ere, bere klaseko gehienek ez dute ingurune euskalduna eta bera, Leitzara doanean euskara besterik ez du entzuten. Gainera, bai tutoreak bai arratsaldetan zaintzen duen neskak Wambui hizkuntza hau ikasteko interesa duela adierazten du eta hori oso garrantzitsua da. Gainera, oso memoria ona duenez eta askotan entzuten eta errepikatzen dituen esaldiak ikasten dituzenez, orokorrean, hizkuntza honetan komunikatzea oso azkar lortuko duela daude.
	H3	<ul style="list-style-type: none"> - Orientatzailearena - Familiarena 	Bai tutoreak bai orientatzaileak ere, euskaraz oinarrizko gaitasunak eskuratzen dituzenean, gaztelera ikasteko eta hitz egiteko ez duela zailtasunik izango diote. Gainera, Zizurren komunikatzeko erabiltzen den hizkuntza gaztelera da, eta bere etxean bizi diren gainontzeko haurrak berarekin hizkuntza honetan komunikatzen direnez, hitz eta esaldi asko ezagunak izango zaizkio eta erabiltzeko gai izango da.
IDATZIZKOAN	H1		Nahiz eta momentuz bere izena besterik ez duen idazten, euskaraz (eta beraz gaztelera ere) letrak beraien soinuarekin identifikatzeko gai da; ondorioz, tutore, orientatzaile eta PTak diotenez, ez zaio asko falta gaitasun hau lortzeko.
	H2		
	H3		

Hezkuntza eleanitza eta Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak: hiru kasu praktiko

Familia hau duela urte bat iritsi zela Keniatik, eta denbora honetan jaso izan duten hizkuntza euskara izan da. Gainera, hizkuntza hau ikasteko duten motibazioa oso handia da; are gehiago, Leitzan egin izan dituzten erlazio sozialak hizkuntza honetan mintzatzen dutenak izan dira.

Gainera, familia berrelkartzea Leitzan egin nahi dutela kontuan hartzekoa da; izan ere, bertara bizitzera joango balira, neskatxak euskaraz mintzatzea oso garrantzitsua izango litzateke. Baliteke aitari edota amari Espainiar estatuko beste lekuren batean lana eskeintzea, eta horrela izango balitz, neskatxak gaztelera izango litzateke jakin beharko lukeen hizkuntza. Dena den, arestian esan bezala, Wambuik gaztelera ikasteko ez ditu zailtasun handirik izango, beraz, beste lekuren batetara bizitzera joan behar izango balira, hizkuntza honetan oinarrizko gaitasunak eskuratzeko gai izango delakoan daude.

4.3.1. Erabakia:

Asko pentsatu eta eztabaidatu eta gero, ikastetxeko profesionalek familiaren iritziarekin batera, Wambui D ereduan jarraitzea erabaki dute. Dena den, neskatxa honen hezkuntza prozesua bere erritmoa jarrai dezan, ikastetxeak esku-hartzea proposatu du.

4.3.2. Esku-hartzea:

Kasu honen esku-hartzea, hiru eremu nagusietan emango da: ikastetxe, ikasgela eta familia mailan.

1. Ikastetxe mailan:

- Arrazakeriaren inguruan egon daitezkeen umeen arteko gatazkak saihesteko, irakaslegoari formakuntza eman. Neurri hau, eskolan dauden etorkin guztiei begira egingo da.

- Ikastetxean, urtero, aste kultural bat antolatzen da. Bertan, egun bakoitzean leku bateko kultura, biztanle, bizimodu... ezberdinak ezagutzeko aukera dute. Aurten, Wambuiren iristearekin batera, Kenia ezagutzeko egunean, hainbat ekintza antolatzea bururatu zaie, bertako kultura ezagutzeaz gainera, bere integrazioan laguntzeko. Adinaren arabera, ekintza bat edo beste egingo dute:

Hezkuntza eleanitza eta Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak: hiru kasu praktiko

handienek adibidez swahili-euskara hiztegia egin dezakete, bertako paisaiak ikusi eta landu etab.; eta txikienek, ordea, bertako tribuak bezala mozorrotu, abestiak ikasi, margolanak egin...

2. Ikasgela mailan:

- Wambui iritsi baino lehen, irakasleak ikasleekin bere harrerarako ikasitako hitzak egunerokotasunean erabiliko ditu eta gainera, egunero neskatxak, hitz berriren bat erakutsiko die. Horrela, bera protagonista bihurtuz eta egiten duena goraipatuz, besteek haien taldean integratzeko nahia handituko da.
- Tutoreak, errutinak oso zehatz jarraitu beharko ditu eta beti esaldi berdinak erabiltzen saiatuz, Wambuik esaldiak ikasten joan dezan. Adibidez: Nor etorri da? Nor falta da? Zenbat gaude?...
- Ezberdinenganako errespetua landu, horretarako, gelan, leku ezberdinetako haurren argazkiak ikus dezakete, hauek komentatu... eta nahiz eta fisikoki ezberdinak izan, berdinak garelaren kontzeptua azpimarratu.
- Etxe txokoan sortzen den joku sinbolikoa familia motak, lanbideak, ohitura ezberdinak... lantzeko aprobetxatu. Neurri hau, klasean dauden beste hainbat umerentzat aberasgarria izan daiteke, izan ere, gaur egun edozein gelako umearen gurasoak bananduta egon daitezke, guraso bakarreko familia izan...
- Klaseko lagunek gazteleraz hitz egiten dutenean, irakasleak “ X euskaraz Y esaten da” esango du; horrela, neskatxak gaztelerazko hitzak eta hitz horiek euskaraz nola esaten diren eta zeintzuk diren identifikatu eta ikasiko ditu.

2.1. Ikaslearekin:

- Tutoreak neskatxari galderak egiterakoan, hitz gakoa behin baino gehiagotan errepikatuko dio. Adibidez: Jantokian... Bai, jantokian bazkaldu duzu ezta? Zer bazkaldu duzu jantokian?
- Wambuirekin hitz egiten duenean, poliki egingo du, keinuak eta aurpegi espresioak erabiliz eta begietara begira.
- Egunero erabiltzen dituzten esaldien edota galderen egitura beti errespetatu, horrela, behin eta berriz entzunda buruz ikasiko ditu. Adibidez: komunera joan naiteke?, eskuak garbituko ditugu, liburutegira (patoria, psikomotrizitate gelara...) goaz...

- Lagunen izenak ikasteko eta idatziz identifikatzen hasteko, gelako kideen izenak eta haien argazkiak emango dizkiogu etxean amarekin errepasatzeko.

3. Familia mailan:

- Ama Wambuirekin haien egoeraren inguruan mintzatu behar da: zergatik Leitzatik joan diren, neskatxa udaletxeak jarritako neskarekin dagoen bitartean bera non dagoen azaldu behar dio, bere lana bukatzerakoan berarekin jolastera bueltatuko dela... Aitarengan ere mintzatu behar dira: berari haiekin egotea gustatuko litzaiokeela baina ezin duela, ahal bezain pronto berriro denak elkarrekin egongo direla, nahiz eta urrun egon asko maite duela... Horrela, Wambuik bere amarekiko duen atxikimendua eta bere barruko emozioak eta sentimenduak landuko dituzte.
- Asteburuetan, ama eta Wambui elkarrekin daudenean, elkarrekin ongi pasatzeko aprobetxatu behar dute: elkarrekin jolastu, parkera joan, liburuak irakurri, klaseko lagunen izenak ikasi... Gainera, egun hauetan, haien etxean bizi diren beste familiekin eta haien umeekin harremanak daitezke; hau aberasgarria izango da bai neskatxarentzat bai amarentzat ere, haiekin gaztelera lantzeko eta hitz egiteko aukera dutelako.
- Gurasoek swahiliz hitz egiten jarraitu behar diote; ez dute bi hizkuntzak nahastuko dituelaren beldurrik izan behar; gainera, hizkuntza honetan hitz erraz batzuk idazten erakutsi diezaiekete.
- Hirurak elkarrekin dauden asteburuetan, Wambuiren gustukoa den ekintza bereziren bat egiteko aprobetxatu behar dute: txangoren bat egin, antzerkiren batera joan... Hau, familia-unitatea indartzeko baliogarria izango zaie.

ONDORIOAK

Aztertutako hiru kasuak lau zati berdinetan banatuta daude: kasuaren deskribapena, bakoitzaren Hezkuntza Premia Bereziak, ereduz aldatzeko edo ez kontuan hartu beharreko irizpideak eta erabakia, eta bakoitzaren esku-hartzea.

Lehenik eta behin, esan beharra dago, hiru kasuetan, esku-hartzean familia eta eskola eremuetan egin direla aldaketak; eta maila kognitibo baxuena zuen kasuan, Curriculum Egokitzapen Indibiduala ere egin zaiola. Familia eremuan oso zaila da proposatzen den esku-hartzea egiten den ala ez jakitea; eta eskolan, inplikazioa, ezagutzak eta alde zuzenetik pentsatutako ideiak gaitzaren (izan ere, D ereduko irakasle askorentzat murgiltzean ikasteak zailtasun bat ekartzen du) arabera egingo den edo ez.

Bigarrenik, erabakiak hartzeko momentuan, haurraren ezaugarri pertsonalak eta kognitiboak kontuan hartzeaz gainera, beste hainbat faktorek ere eragina izan dute erabakian. Bakoitzaren testuinguru familiarra, soziala eta ekonomikoa kontuan hartzea ezinbestekoa da, kasu berdinetan haurraren testuingururen bat aldatuta, proposatutako esku-hartzea guztiz ezberdina izan baitaiteke.

Lan hau ez da batere erraza; izan ere, barruko gauza asko galdetzen dira (etxean zein hizkuntzatan mintzatzen diren, bakoitzaren soldata edota dituzten diru-sarrerak...) eta batzuetan, galdera horiek erantzuterakoan ez da objektibotasunik lortzen; datu asko aldakorak dira (agian, egun batzuetan hizkuntza batean hitz egiten diote haurrari eta, beste egun batzuetan, beste hizkuntza batean; agian, hilabete batean 600€ kobratzen ditu eta, beste hilabete batean, ez du kobratzen...) eta azkenik, hizkuntzaren egoera edota estatus soziala zein den jakitea oso garrantzitsua da. Beraz, egoera bat deskribatzea oso zaila da eta ez da inkesta soziolinguistiko batekin ixten.

Gainera, ereduz aldatzea erabakiz gero, horrek arlo emozionalean duen eragina kontuan hartu behar da. Askotan, umea erdal eredura pasatuz arazoak konpontzen direla esaten da, eta ni ez nator horrekin bat. Nik uste dut erdal eredura pasatuta arazoak ez direla zertan konpondu; gainera, ereduz aldatzearena eskola elebidunetan elebazarretan baino errazago proposatzen dela uste dut; eta azkenik, umea beste eredu batera pasatu eta bere klaseko lagunak, anaia-arrebak... eskola eta eredu berdinean geratzen direla ikusteak

alor emozionalean eta autoestimuan eragin ikaragarria izan dezakeelakoan nago. Hori guztia dela eta, erabakiak hartzeko momentuan kontu handia izan behar dela ondorioztatzen da.

Bestalde, aztertutako kasuetan erabakiak hartzeko momentuan adostutakoak ez du zertan iraunkorra izan behar. Momentu zehatz batean umea D ereduan ikasten jarraitzea erabaki daiteke, baina agian, eskolan ingelesa izan daitekeen H3 (edo batzuentzat H4) ikasten hasterakoan umeak zailtasunak izango balitu, kasua berraztertu beharko litzateke eta, agian, ereduz aldatzea edota bere ama hizkuntzan edo gehiengoaren hizkuntzan eskolatzea erabaki daiteke.

Hirugarrenik, esan beharra dago, ez dagoela pertsona guztiak neurtzeko balio duen neurgailurik; eta neurgailuak pertsona bera baina momentu ezberdinetan neurtzeko ere ez duela balio. Hori horrela izanik, ikasleen zailtasunak eta aurrerapenak ikusten joateko, PT irakaslearen, logopedaren, tutorearen eta orientatzailearen lana etengabe egon behar da eboluzioan, ebaluazio eta ikaslearen beharretara moldatzen.

Ondorio gisa, pertsona bakoitza bere osotasunean hartuta, kasu berezia dela esan daiteke; eta hori horrela izanik, modu indibidualizatuan ulertu eta ikertu behar da. Pertsona bakoitza berezko baliabideak (inteligentzia, emozioak, gaitasunak...), baliabide familiarak, hezkuntza-komunitatearenak eta erakundearenak (udalak eskaintzen dituenak, besteak beste) ezagututa ikertu behar da.

Murgiltzean eskolatzearen inguruko erabakiak hartzeko momentuan, komenigarria da Cummins-en gomendioa kontuan hartzea:

“Cuando se ha desarrollado bien la primera lengua, se puede adquirir una 2ª con relativa facilidad. Cuando la primera está menos desarrollada o cuando se intenta remplazarla por la segunda, el desarrollo de esta segunda puede verse obstaculizado” (Cumminsek Baker-en, C. 1993 127.orr)⁵

⁵ “Lehendabiziko hizkuntza ongi garatu denean, bigarrena nahiko erraz eskuratu daiteke. Lehendabizikoa gutxiago garatuta dagoenean edo bigarrenarekin ordezkatzan saiatzen denean, bigarren hizkuntzaren garapena oztopatuta ikus daiteke”

Hezkuntza eleanitza eta Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak: hiru kasu praktikoko


ESKERRAK

- Barañaingo udaletxean Herritarren Arreta bulegoan lan egiten duen Santi Galarzari eta Zizur Nagusiko udaletxeko langileei.
- NUP-eko Iñaki Martinez Urmeneta irakasleari inplikazioan, laguntzan, orientabidean eta zuzenketan erakutsi duen eskuzabaltasunagatik.
- Nire familiari haien laguntza eta kemenagatik.

GEHIGARRIAK

Gehigarriak 1

Spolsky-ren taula







En Baker pág. 129

Gehiagrriak 2

Cummins-en txirrindula

La bicicleta de Cummins y el aprendizaje precoz de tres lenguas.

	 <p style="text-align: right; font-size: small;">© 2010 - www.gutenberg.org</p>
<p>1. Una rueda puede llevarte a sitios.</p>	<p>2. También puede una rueda grande y otra pequeña.</p>
	
<p>3. Sin embargo cuando tus ruedas están equilibradas y totalmente hinchadas llegarían más lejos.</p>	<p>4. ¿Qué pasará con tres ruedas?</p>

Gehiagriak 3

Haur Hezkuntzako etapan urte bat gehiago egoteko txostena

DATU PERTSONALAK

Abizenak	Izena
Jaiotza data	Tokia
Helbidea	Telefonoa
Herria	Posta-kodea
Ikastetxea	Maila / Etapa

DATU PSIKOPEDAGOGIKOAK

A.- Ebaluazio psikopedagogikoaren laburpena eta diagnostiko ardatza	
B.- Haur Hezkuntza urte bat gehiago egotea arrazoiak	
C.- Aurreikusitako baliabideak	
Txostenaren egilea:	Data eta sinadura
NHBBZ/CREENAko ondoko moduluak lagundu du (hala balegokio):	Data eta sinadura
Ikaslearen tutorearen oniritzia.	Data eta sinadura
Ikastetxeko zuzendariaren oniritzia	Data eta sinadura
Ikaslearen familiaren edo tutoreen adostasuna.:	Data eta sinadura
Bidalia ikuskapen Zerbitzura	Eguna

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- **Arregi, A.** -CEI/IDC- *Bilingüismo y Necesidades Educativas Especiales / Elebitasuna eta hezkuntza premia bereziak*. Documento nº 7 de la serie: Necesidades Educativas Especiales. Vitoria-Gasteiz: Dirección de Renovación Pedagógica. Disponible en pdf en http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_neespeci/adjuntos/18_nee_110/110015c_Doc_IDC_bilinguismo_nee_c.pdf
- **Arregui, A.** 1997 *Síndrome de Down: necesidades educativas especiales y desarrollo del lenguaje*. Disponible en pdf en http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/es/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_neespeci/adjuntos/18_nee_110/110012c_Doc_EJ_sindrome_down_c.pdf
- **Azurmendi, MJ.** *Sánchez Carrión, José María "Txepetx". 1987 Un futuro para nuestro pasado. Claves para la recuperación del euskera y teoría social de las lenguas*. Disponible en pdf en <http://www.euskomedia.org/PDFAnt/riev/34/34323330.pdf>
- **Belinchón, M ; Igoa, JM.; Gortázar, P.; García, J.** *La atención a las personas con TEA en contextos de diversidad lingüística y cultural* Gortazar aetapi donostia. Disponible en PDF. http://www.aetapi.org/congresos/donosti_08/mesa_bilinguismo.pdf
- **Baker, C.** 1995 *Fundamentos de educación bilingüe y Bilingüismo*. Ed. Cátedra I.S.B.N.: 84-376-1522-4
- **Cummins, J.** 2002 *Lenguaje, poder y pedagogía*. Ed. Morata S.L. ISBN 84-7112-475-0
- **Etxeberria, F. y Vazquez, G.** *Lecturas en la educación*. Disponible en PDF. http://webs.uvigo.es/xenero/profesorado/carmen_pereira/lecturas_educacion.pdf
- **Etxeberria, F.** 2002 *¿Trilingües a los cuatro años?* Ibaeta pedagogía. ISBN 9788493178345
- **Instituto Cervantes**, 2006. *Diccionario de términos claves de ELE*. [en línea]. 30 octubre 2006 [citado 1 agosto 2005]. Disponible en World Wide Web: http://cvc.cervantes.es/obref/diccio_ele/>
- **Lambert, W.E.** *Un experimento canadiense sobre desarrollo de competencia bilingüe : Programa de cambio de lengua Hogar-escuela .*

Disponible en PDF.

<http://www.doredin.mec.es/documentos/00820073003260.pdf>

- **Martinez Urmeneta, I.** 2009 - Hizkuntz murgiltze prozesuan dauden heziketa behar bereziko ikasleen jarraipena. Registro propiedad nº 00/2009/5249
- **Ruiz Bikandi, U. (Editora)** *Didáctica de la segunda lengua en educación infantil y primaria*. Ed. Síntesis. ISBN 84-7738-770-2
- **Segura, M. y Cuenca, M.** 2004 – *Relacionarnos bien : Programa de competencia social para niños y niñas de 4 a 12 años*. Narcea, S.A. ISBN: 84 277 1454 8
- **Sotes, P. M. Teresa Turell (ed.) (2000).** *Multilingualism in Spain. Sociolinguistic and Psycholinguistic Aspects of Linguistic Minority Groups* Estudios de Sociolingüística 3(1), 2002, pp. 277-283, disponible en PDF http://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&frm=1&source=web&cd=1&ved=0CDAQFjAA&url=http%3A%2F%2Fwww.sociolingüística.uvigo.es%2Fdescarga_gratis.asp%3Fid%3D68&ei=QAqJUaHVBsup7Aax2ID4Dw&usq=AFQjCNEk4iqT-2PVbZE3oNTVM7tO91hghg&sig2=DgmlVrB4c-h7AEIewPA7Xw&bvm=bv.45960087,d.d2k
- **Skutnabb-Kangas, T; Cummins, J.** (1988) *Minority Education: From Shame to Struggle*. Clevedon: Multilingual Matters
- **Vila, I.** *Reflexiones en torno al bilingüismo y a la enseñanza bilingüe Infancia y aprendizaje* .Journal for the Study of Education and Development 1983,Nº 21 pág. 4-22. ISSN 0210-3702, ISSN-e 1578-4126. Disponible en PDF en DIALNET <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=668598>

Artikuluak:

- **Languages for People with Special Educational Needs.** *Projet.* Disponible http://archive.ecml.at/mtp2/LangSEN/html/LangSEN_E_pdesc.htm Consulta mayo 2013
- **Universidad de Alcalá.** Bolg Psicopedia. *Etapas de escritura.* disponible en <http://psicopedia.blogspot.com.es/2011/03/etapas-en-la-adquisicion-de-la.html> - Consulta mayo 2013.

Hezkuntza eleanitza eta Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak: hiru kasu praktikoko